


2.061: antzinako kronikak

TXILIKU



SOR

TXILIKU. 1951. urtean jaio zen Jesus Mari Olaizola, apirilaren 15ean hain zuzen. Aste bete baino lehen ezarri zioten ezizena: Martin Txiliku zuen aitona, Jesus Txiliku aita eta Txiliku izan behar berak ere, ezin ukorik egin hain gaztetandik jasotako tituloari. Orain, hogeita... urterekin (hogeitasko, baina hogeita...) nahiko gauza bitxia egiten zaio testugintzan lau urtez ari dela pentsatzea, are gehiago aurrez hamabi urtez irakasle izan dela gogoratzen duenean. Baina ondo daki nondik sortua den «Till Eulenspiegel» itzulpena eta «Zozoa eta biok», «Kaltxaberde, Tturku eta Gotzon» eta «2061: antzinako kronikak» liburuak egiteko denbora: loari ostutako orduetatik.

2061:ANTZINAKO KRONIKAK. 2061. urtean ez dago libururik Euskal Herrian, ez dira ezertarako behar: grabagailu, ordenagailu, simulagailu eta beste gailu guztiak alferrikakoak egin dituzte liburuak. Hala ere, museotàn eta liburutegi zaharretan aurkitu daitezke oraindik eta Harkaitz eta Itsaso bikoteak liburu zaharren arazo hau ondo aztertzea erabaki du. Unibertsitate zaharreko alegiagailu berriarekin 1912, 1956 eta 2020. urtetan nola bizi ziren jendeak ezagutzera joango dira eta garai bakoitzeko liburuak edo ipuinak aztertuko dituzte. 2061. urtean idazten hasitako liburu honetan, Euskal Herriko eta agian munduko azken liburu honetan, beti haserre dabilen bikote maitemindu batek beren aurrekoen antzinako kronikak erakutsiko dizkizue.



ISBN 84-7529-787-0



9 788475 297873